

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko urriaren 5a. VIII. urtea. 2.284. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Aimar Agirresarobe Triatloilaria

«Hezetasuna eta beroa dira aurkari gogorrenetakoak Hawaii-en»

Aimar Agirresarobe tolosarrak Hawaii-ko Ironman proban parte hartuko du, hilaren 8an; distantzia horretako Munduko Txapelketa gisa hartzen da lasterketa

Bederatzi ordu eta erditik behera egitea du helburu; posible ikusten du lehenengo ehun postuetan sailkatzea, eta hori lortzea «polita» izango litzatekeela dio **3**



Kamisetana. I.GARCIA

Gazta nola egiten den ikusi ahal izango da Ikaztegietan larunbatean egingo duten Euskal Jaian

Oñatiko Artzai Eskolako kideak izango dira herrian gazta egiteaz gain, dastatzeko aukera emanaz; 10:00etatik aurrera postu ugari izango dira bertako produktuak erosi ahal izateko **6**

SAMko langileek kaleratzeak salatu dituzte

Zuzendaritzak lau langile kaleratu ditu, eta enpresa batzordeak mobilizazioekin erantzun die; LABeko bi ordezkariak etorkizunarekin «kezkatu» agertu dira **5**



SAMko langileek elkarretaratzera egin zuten larunbatean, Trianguloan. A.I.

Ostiraletik aurrera, lau eguneko festa izango da Berazubín

Tolosako auzoan dauden lokaletako gazteek hartu dute, berriz ere, jaiak antolatzeko ardura; bertsolaritza, musika, danborrada... izango dira **2**



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Kondeko aldepa. 5
www.funerariavascongada.com



Gertu...

TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI @ SULA BEA

24 H..

943 670 040

Gutunak**Agur, Jokin**

Politikatik aldentzeko hartu duzun erabakiarekiko erabateko errespetua adieraztearekin batera eta zure kargu uztearekin ondorioez sakontzeko inongo asmorik gabe, prentsaren bidez aditzera eman dituzun zenbait ideien gaineko gure ikuspuntua eman eta zuzenketa batzuk egin beharrean aurkitzen gara.

Ez dakigu alkatetza eskuratu ezaren ondorioz izan den, edota Madrileko Kongresurako hauteskundetarako zerrendak egiterakoan alderdiaren babes falta somatu duzula; edonola ere, politikatik aldentzea erabaki duzu. Gure ustez ez duzu oso modu dotorean egin. Prentsa agerraldiaz balliatu zara hauteskundeak irabazi dituen eta zilegitasun osoz gobernu erantzukizunak bereganatu dituen talde politikoaren aurkako salaketak egiteko. Gobernuaren ehun egunetan pare bat aldiz besterik udaletxean agertu ez arren, nahiko izan dituzue Bilduk proiekturik, ametsik, handigurari, edota Tolosaren aldeko interresik ez duela, handikeriaz epaitzeki. Salaketa hauek alkate ohi baten ahotan, ikuspegi politiko mugatua eta erresumina erakusten dute, erresumin handia.

Askoz egokiagoa eta duina goa izan zitekeen, desberdintasun politikoaren gainetik, umiltasun osoz, oposizioetik eta politikoko arrunt gisa zure lanerako prestatasuna erakutsi izan ba-

zenu, baina ez da horrela izan. Zuk nahiago izan duzu, zein ondo egiten jakin duzun erakutsiaz, irakasgaiak emanez alde egitea; baina, zuk gobernatu duzun udalak, zure agintaldia eta gero, 26 milioi eurotako zor asaldagarria duela aipatzea ahaztu egin zaizu. Kezkatuta zozazela diozu, baina kezkatuta egoteko benetako arrazoia dutenak bertan geratzen direnak dute, gainean dugun krisi ekonomikoan egoera zailari aurre egin behar diotenak.

Ez dugu uste gazteriarantz atxeridugarria izan daitekeenik politika zirrargarria dela esanez jardutea 'goian' zauden bitartean eta politikatik aldentzea postua galtzen denean.

Jokin, eskailera bi norabideetarako eginak dira: igo eta jaitsi egiten da. Politikoko duintasunez eta dotoreziaz jaisten jakin beharko genuke, eta ez zantbuluka hauteskundeak demokratikoki irabazi dituen taldearen lana gutxietsiz. Ez al zaizu hala iruditzen?

Esandako guztiak esanda ere, Jokin, zure sokakoak ez izanagatik, jaingo guztien bedekinkapena izan dezazula eta abiatu duzun ibilbide berrian desira pertsonal guztiak bete daitezela opa dizugu. Agur Jokin, oinarriko politikoa gisa, jo eta su eginkizun politikoetan aurkituko gaituzue etorkizunean ere.

■ **Silvana Ostiza eta Antton Izagirre.**



Jokin Bildarratz, Joan den asteko agerraldian. R. CALVO

Lau eguneko egitaraua prestatu dute Berazubiko jaietarako

Ostiralean hasiko dira, eta asteleheneko atsedendialdiaren ondoren, asteazkenean izango da azken eguna

Itzea Urkizu

Lau eguneko jaiak antolatuta dituzte aurten, Berazubi auzorako. Laugarren urtez jarraian, auzoko

bi gazte kuadrilen artean antolatu dituzte auzoko festak.

Datorren ostiralean hasiko dira Berazubiko jaiak, eta asteazkenean arte luzatuko dira, urriaren 12ra arte. Ostiralean, beraz, 19:00etan txupinazoak hasiera emango die jaiak, eta bertsoari eskainiko diote iluntzea; bertso poteoaren ondoren, bertso afaria izango da. Auzoko tabernetan salgai izango dira afari txartelak.

Larunbatean, urteroko danbo-

rrada izango da ekitaldirik aipagarrienetarikoa. Ondoren, disko festa izango da goizaldera arte, eta 06:00etarako txokolatada antolatu dute.

Igandean, gastronomiaren txanda izango da paella lehiaketarekin, eta asteleheneko atsedendialdiaren ondoren, asteartean magia, reggae-a eta saltsa izango dira, besteak beste. Asteazkenean, babarrun jatearekin eta zezentxoekin amaituko dira jaiak.

Aratz Garmendia • Jaietako antolatzailerako bat**«Jaiak herritar guztiei irekiak dira»**

Laugarren urtez, Berazubiko jaiak auzoko lokaletako gazteek antolatuko dituzte. Aratz Garmendiak nondik norakoak azaldu dizkio HITZARI.

Duela hiruzpalau urte, bi kuadrila Berazubiko festak berpizten hasi zintzen. Nolatan?

2007an antolatu genituen lehenengoz. Lokala Berazubin dugun bi gazte talde gara, eta jada baziren hiru edo lau urte, Berazubiko jaiak ospatzen ez zirela. Hor ibiltzen ginenez, eta nahiko parranda zaleak ginenez, pena ematen zigen auzoan festak ez ospatzeak. Horregatik hasi ginen.

Nola finantziazten dituzte festak?

Gehienbat jartzen dugun txosnako barratik. Tolosako Udaletik ere, urtero, diru laguntzaren bat izaten da; urteren batean ez zen izan, baina normalean zerbait jasotzen dugu jai batzordetik, edo kultura batzordetik. Honez gain, jaietara etortzen diren barraketako arduradunek, auzoan aste bete pasatzeagatik dirua ematen digute. Hiru diru iturri horiek erabiltzen ditugu gehienbat. Gainera, auzoko tabernekin ere dirua eman izan digute, eta auzotarren pos-

tontzietan ere borondatea eskatu izan dugu.

Zuek festak antolatzen hasi zintenez geroztik, nabaritu al duzue urteko gorakadarik?

Egia esan, garai batean Berazubiko jaietan gaur egun baino jende gehiago ibiliko zen, ziurrenik; auzoetako festa gehienetan bezala, oro har. Antolatzaileran lanetan hasi ginenez, desberdintasuna nabaritu dugu; lehen urteetan, bazirudien guretzako festak egin genituela, baina azken urteetan berriro ere Berazubi auzoko jaiak bilakatu direla uste dut. Izan ere, garai bateko auzoko festa batzordeko kideekin eta elkarrekin elkarlanean egiten ditugu gauzak.

Aurten lau eguneko jaiak antolatu dituzue Berazubirako. Zer nabarmenduko zenuke egitarauetik?

Esan daiteke, gazteek dena antolatzen aritzen garen arren, gure ardura nagusia gaueko festa prestatzea izaten dela. Egunean zeharreko gauzak tradizio gehiagokoa izaten dira, jada urte askotan ospatu dituzten janari txapelketa, babarrun jatea eta abar. Hauek mantentzea erabaki genuen, auzoko jendea identifikatuta senti-

tzen baita beti egin izan dituzten ospakizun hauekin. Aipatzekoa da, ostiral gauean bertso afaria izango dela, eta eskualdeko bertsolariak abestuko dutela. Kontzertuekin ere, beti saiatzen gara kide tolosarrak dituzten taldeak gonbidatzen. Musika jartzen, berriro, geroi aritzen gara. Asteartea ere egun polita izango da, hurrengo eguna jai eguna denez, jende asko bertaraten baita. Antolatzailerok antzerki bat egitea pentsatu dugu. Saltsa musika egiten duen talde kubatar bat izango da, eta reggae musika egiten duen beste bat ere bai.

Badirudiorain dela urte batzuk auzoetako jaiak itzaltzen hasi zirela. Orain, berriz, gazteek berpiztu dituzte jai horietako batzuk. Betiko auzotarren harrera ona hasieratik izan al zenuten?

Lehenengo urte zailagoa izan zen, hiruzpalau urte baitzeramaten festarik antolatu gabe. Gu hasi ginenean ere, gure gisara ibili ginen, baina orain elkarlanean aritzen gara esan bezala. Beste auzoetako batzuekin ere harremana badugu, Izaskungeoekin edo San Estebangoekin adibidez. Hemen aipatu nahiko nuke, auzoko festak diren arren, herritar guztientzat irekiak daudela jarduerak guztiak. Bertso afarirako txartelak erosi behar dira, adibidez, baina babarrun jatera edo nor etor daiteke.

↓ Berazubiko jaiak, 2011**URRIAK 7, OSTIRALA**

- 19:00. Txupinazoa.
- 19:30. Bertso poteoa.
- 21:00. Bertso afaria.
- 00:00. T.I.M (The Introspective Mariachis), Rei Kimera, Red Veil.
- 02:00. Puntzaka DJ.

URRIAK 8, LARUNBATA

- 12:30. Tortila txapelketa sagardoarekin.
- 16:00. Mus txapelketa.
- 17:30. Ume jokoak.

- 18:30. Umeentzako txokolatada.
- 23:00. Danborrada.

- 19:30. Bertso poteoa.
- 00:00. Disko Festa, «Xabi dantzaleku».
- 06:00. Txokolatada.

URRIAK 9, IGANDEA

- 09:00. Udal txistulariak.
- 14:00. Paella txapelketa eta bazkaria.
- 17:30. Zezentxoak zezen plazan.
- 19:00. Bideo proiektzioa.

URRIAK 11, ASTEARTEA

- 18:00. Txokolatada.
- 19:00. Jon Magic magoa.
- 18:00. Txokolatada.
- 21:30. Zahagi sagardoa.
- 00:00. Expreso 4, Ras Miguel & Tafari eta DJ Duboa.

URRIAK 12, ASTEAZKENA

- 09:00. Udal txistulariak.
- 14:00. Babarrun jatea.
- 17:00. Toka txapelketa.
- 17:30. Zezentxoak zezen plazan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Aimar Agirresarobe ◊ Triatloilaria

Bederatzi ordu eta erdiko marka du Aimar Agirresarobe tolosarrak buruan sartuta. Denbora horren azpitik egin nahi du Hawaii-ko Ironman proba.

«Polita izango litzateke lehen ehun postuetan sartzea»

Imanol Garcia Tolosa

Hawaii-en, triatloiararen sorrerian, dago Aimar Agirresarobe (Tolosa, 1981). Bertako Ironman-a Munduko Txapelketa modukoa da mota horietako triatloietan, eta aurtengoa larunbat honetan jokatzen da, hilaren 8an. Igeri 3,8 kilometro, bizikletan 180 kilometro eta korrika maratoia egingo dute. Denboraldia maiatzean hasi zuen Agirresarobek eta emaitza oso onak lortu ditu. Besteak beste, 13. egin zuen Ironman Regensburg proban, 3. Espainiako Distantzia Ertaineko Txapelketan, lehenengo Garaiko Ironman Erdian eta 8. Donostiako Nazioarteko Triatloian, Gipuzkako txapela lortuz triatloi olinpiarrean. «Orain arteko denboraldirik onena izan da emaitza aldetik, baina sentsazioak ez dira izan emaitzak bezain onak», dio. Bere jarduna aimaragirresarobe.blogspot.com helbidean jarraitu daiteke.

Noiztik zabilta triatloian?

Orain dela zazpi bat urte hasi nintzen probatzen mundu hau. Dualoiekin hasi nintzen. Betidanik korrika eta bizikletan ibiltzen nintzen nire aldetik. Azkeneko hiru-lau urteetan denbora asko eskaini diot.

Hortik bizitzea zaila izango da, ezta?

Orain nahiko modan dago triatloia. Urtetik urtera jende gehiago dago, eta diru gehiago mugitzen da. Jende gehiago bizi da horretaz, baina ondo bizi direnak gutxi batzuk dira.

Zu ez zara profesionala, baina beraien mailan aritzen zara?

Denak batera lehiatzen gara. Eneko Llanos, esaterako, munduko onenetakoa da, eta bere mailara ez gara iristen, baina profesional askoren mailan bagoaude. Tolosan, behintzat, bizpahiruk profesionalen aurretik egin dugu proba askotan. Gero, zenbaitzuk bere burua ondo saltzen dute.

Atletiko San Sebastian klubean zaudete. Zertan laguntzen dizu?

Klubak Euskal Herria eta estatu mailan laguntzen digu izen emate eta bidaia gastuetan. Hori laguntza handia da. Nazioarte mailan, bakoitza bere aldetik moldatzen da. Gero, klubaren bitartez eta gure aldetik, saiatzen gara hainbat markarekin harremanetan jartzen laguntza lortzeko. Dirua baino, materiala edo deskontuak lortzen dira. Hiru kirol dira, eta hiru zentzuko entrenatzeko eta lehiaketarentzako materiala behar duzu, elikadura,...

Entrenatzailea duzu?

Ramon Elkoro entrenatzailearekin hasi nintzen, eta berarekin jarraitzen dut. Urtero joan naiz hobetzen eta bera da honaino iritsi izanaren errudunetako bat.

Bigarren aldiz egin behar duzu Hawaii-ko Ironman proba.

2009an egon nintzen, baina bizikletarekin erorikoa izan nuen. Proba bukatu nuen, baina beti gelditu izan zait arantza hori: nola egin ahal izango nuen, zer marka egingo nuen... Hasiera batean ez nuen pentsatzen joatea, baina familiak bultzatuta berriro animatu naiz, nahiz eta denbora asko ez izan prestatzeko.

Proba nolako den ezagutzen duzu, behintzat.

Badakit zer topatuko dudan han. Aurkari gogorrenetakoak hezetasuna eta beroa dira. Hori hemendik bilatzea zaila da. Klimak gogortzen du klima.

Nola sailkatu zara proba garrantzitsu honetara joateko?

Ironman frankizia bat da. Munduan zehar proba batzuk daude, eta bakoitzean bi maila: profesionalak eta amateurak. Profesionalak sailkatzeko modu bat dute, aurtun berria dena, eta amateurrek leku kopuru jakin bat dute. Leku horietan sartzen bagara, aukera duzu joateko edo ez. Ni aurtun Alemanian egon nintzen abuztuko lehenengo asteburuan,



I. GARCIA

Regensburg-en, eta sailkapen orokorrean 13. egin nuen, eta nire mailan laugarren. Bost leku zauden, eta, beraz, niri zegokidan joatearen ala ez joatearen erabakia.

Zein da zure helburua Hawaii-en?

«Urtetik urtera jende gehiago dago triatloian, eta diru gehiago mugitzen da»

«Aurkari gogorrenetakoak hezetasuna eta beroa dira»

Ahalik eta ondoen egitera joango naiz. Abuztutik orain arte atsedena hartu eta berriz forma hartzea ez da erraza. Buru-belarri ari naiz entrenatzen, eta helburua bederatzi ordu eta erditik jaitea da. Hori lortzeko aukerarekin banago, ez da gutxi izango, azkenean lortzen ez badut ere.

Zein da zure marka distantzia horretan?

Nire marka bederatzi ordu eta minutu bat da. Baina ikusita hango klima, eta igeri neoprenorik gabe

egin behar dela, bederatzi ordu eta erditik jaitea niretzat marka oso ona izango zen.

Eta postuari dagokionez, zer duzu buruan?

Ez dakit nola joango den. Parte hartzen duten kirolarien arabera izango da. Aurtun profesionalen kopurua aldatu egin dute eta ez dakit zenbat izango diren. Uste dut posible dela lehenengo ehunen artean sartzea, eta polita izango litzateke. Hortarako, gauzak ondo atera behar dira. Hilabeteak entrenatzen eman eta gero egun horretan dena perfektu atera behar zaizu: triapak ondo izan behar dituzu, gorputza fresko edukitu...

Materiala haraino eramateko, batez ere bizikleta, nola moldatzen zara?

Bizikletarentzako kaxa berezi bat eramaten dut, Tolosako IBK denatetik hartzeko aukera izan dudana. Aurrekoan joan nintzenean, arropa asko eraman nuen, baina oraingoan galtza motzak eta kamisetak eramango ditut. Gehieenez, jertse potolo bat hona itzultzen naizenerako.

Zuk ordaindu behar izan dituzu gastu guztiak?

Nik kudeatu dut dena, bai izen

ematea, bidaia eta bertan egongo naizen egunak... Behin dena antolatzen ari zarela, saiatzen zara ahal duzun tokitik laguntza lortzen. Tolosako Udalak lagundu diot, esaterako, eta nire aldetik beste gauza batzuk lortu ditut: elikadurari dagokionez etxe batek eman dizkit produktuak, Zirauna etxeak lagundu diot arroparekin,.... Horrez gain, kamisetak atera ditut eta ea horrekin ere laguntza pixka bat jasotzen dudan.

Antolakuntza aldetik nabaritzen da Ironman garrantzitsua dela?

Europar ere badaude antolakuntza oso ona duten probak, Hawaii-koaren parekoak. Hawaii-en atletsimo, igeriketa eta bizikleta arloko marka askok egun horietan joaten dira beraien produktuak aurkeztea.

Triatloiko hiru kiroletatik, zeinetan moldatzen zara hobekien?

Hiru kiroltan bakarkak hartuta, ez naiz onena ezertan. Hiruak batera hartuta ondo moldatzen naiz. Igeriketa da nire zatitik ahulena, eta bizikletan postuak aurreratzen joaten naiz. Korrika erdibidekoa izango litzateke, baina azkeneko urtetan asko hobetu dut.

→ Laburrak

Ezker abertzalearen herri batzarra bihar, 19:00etan

ANOETA > Ezker abertzaleak herri batzarra egingo du hilaren 6an, bihar, Anoetako udaletxean. 19:00etan hasiko den batzarrean egungo prozesua, hauteskundeak eta aurrera begirako urratsak eztabaidatuko dira, besteak beste. Herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara ezker abertzaletik.

TOPAK batzar informatiboa eskainiko du

ANOETA > Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) koordinakundeak batzar informatiboa egingo du hilaren 8an, larunbatean, Anoetako udaltxeko areto nagusian. Herritar guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera. Bilera 11:00etan hasiko da.

Ohiko osoko bilkura etzi, 20:00etan, udaletxean

VILLABONA > Ohiko osoko bilkura egingo da udaletxean, hilaren 6an, etzi, 20:00etan. Besteak beste ondorengo gaiak aztertuko dira: bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal ordenantzaren behin betiko onarpenaren berri ematea eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioari dagokionean udal honen konpromiso ekonomiko-finantzarioei eta inbertsio-planen geldiarazpenari buruz PSE-EE aurkeztutako mozioa.

Hautesle zerrendak ikusteko aukera, zabalik

IBARRA > Udalak jakinarazi duenez, 2011ko uztailaren 1ean itxitako hautesle zerrendak, ikusgai aurkitzen dira dagoeneko, urriaren 10era bitarte. Epe honetan, hautesle zerrendan beharrezkotzat jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira.

Guraso izaten ikasteko ikastaroa antolatu dute

IBARRA > Udalak eta Uzturpe Ikastolak *Guraso izaten ikasten: haurrekin batera hazi eta hezten* ikastaroa antolatu dute. Hilean bi orduko saioak izango dira urrian hasi eta ekainera bitarte. Astelehenean elkartuko dira, eta 14:30etik 16:30era saio irekiak egingo dira, eta 17:00etatik 19:00etara aldiz, ikastaro trinkoa. Matrikula egiteko aukera urriaren 7ra, etzira, arte egongo da zabalik, eta 30 euroko kostua dauka. Ibarako Gizarte Zerbitzuetara joan behar da izena emateko. Informazio gehiagorako 943 67 04 15 telefono zenbakira deitzea eskatu dute.

Mundu arabiarrei buruzko hitzaldia hilaren 7an

BERASTEGI > Urepel biltokiko kultur taldeak hitzaldia antolatu du hilaren 7an, ostiralean. Martxelo Diaz kazetariak emango duen hitzaldia aparkaleku azpiko lokalean izango da, 22:00etatik aurrera. *Mundu arabiarak iraultza gosez* gaia jorratuko dute bertan. Herritar guztiak hitzaldira gonbidatu dituzte.

Urriko lehen asteburua kulturaz eta kirolez jantzi du Villabonako Udalak

Ostiralean 'Baginaren bakarrizketak' ikusteko aukera egongo da Gurea antzokian, 10 euroren truke

Asier Imaz Amasa-Villabona

Villabonako Udalak antolatu duen urriko programazioan, lehen aste honetan, antzerkia, kirola eta zinea ikusteko aukera egongo da. Hilaren 7an eta 8an hiru zita daude Villabonan eta Amasan.

Ostiralean, Gurea antzokian, Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai aktoreek *Baginaren bakarrizketak* antzezlan eskainiko dute, 22:30ean. Sarrera 10 euro kostatzen da, eta gazte txartelarekin zortzi.

Begoña Bilbaoeren zuzendaritzapean irtego dira oholtzara bi aktoreak ostiralean. *Baginaren bakarrizketak* 200 elkarriketa ingururen emaitza da; adin, arraza, maila kultural eta sozial ezberdinetatik datozen emakumeak guztiak. Obraren helburura zehatza da: emakumeak euren sexualitatearekiko sentitu eta sentitzen dituzten erru eta lotsa sentipenetatik libre uztea. *Baginaren bakarrizketak* gehien antzeztu den testu garaikideetako bat da; ezta-

baida pizteaz gain, moldeak aurritu nahi ditu, horretarako dinamika sortuaz. Lotsarik gabe, argi eta garbi azaltzen du emakumeen sexualitatea. Umorea, samurtasuna eta tarteka izua adieraziz, bi aktorek ematen diete ahotsa istorio sare honetako emakume protagonistei, eta beraiek bezala, barrearean ondoan poesia eta probokazioa jartzen dute.

Larunbatean, bezperako leku berean, hau da, Gurea antzokian, Arriya pelikula ikusteko aukera egongo da: 19:30ean eta 22:15ean. Alberto J. Gorritiberea zuzendarriaren pelikula urriaren 9an eta

10ean ere ikusteko aukera egongo da Villabonan; igandean 19:30ean eta astelehenean, ikusle-egunean, 21:30ean.

Amasan, pilota partidak

Asteburuko azken ekitaldia Amasan jokatuko den pilota partida izango da. Garfe pilota enpresak Uxo Toki Elkartearekin batera antolatu du urriaren 8ko jaialdia. Larunbatean, 17:00etatik aurrera, Amasan Koka, Goñi III.a eta Mikel Goñi bezalako pilotariak ikusteko aukera egongo da. Guztira bi partida jokatuko dira eta sarrera 12 euro dira.



Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai aktoreak. HITZA

Aizkardi mendi elkarteak Arabako mendi zerrara irteera antolatu du

Oinez eta mendi bizikletaz joateko aukera egongo da; izena hilaren 7a baino lehen eman behar da

Erredakzioa Amasa-Villabona

Aizkardi mendi elkarteak irteera antolatu du hilaren 9rako, igandera. Arabako mendietara joango dira, hain zuzen ere, Entzia mendi zerrara. Andoin eta Musitu artean egingo dute zazpi ordu inguruko ibilaldia. Guztira 26 kilometro inguruko bira egingo dutela aurreikusten dute.

Andoin herritik ekingo diote ibilbideari. Andoingo atakara (1010m) joango dira bertatik. Ondoren, Giliturritik Mirutegira (1156m) abiatuko dira. Burdinezko gurutze handiaren magaletik,



Mirutegi gainera igotzeko aukera edukiko dute igandean. HITZA

eguraldia lagun, Agurain ikustea espero dute. Puntaz-punta, Baio eta Opakoa pasako dituzte. Arrigorrista, Atxuri eta Orratiako gainak igaro ondoren, Musitu herrira jaitsiko dira.

Aizkardiko kideek azaldu duteenez, mendi bizikleta irteera ere antolatu dute egun bererako. Egunean zehar, bi irteerak topo egiteko aukera edukiko dute.

Izena emateko eta informazio gehiagorako, 649 71 71 82 telefono zenbakira deitu behar da, 20:00etatik 22:00etara. Aizkardi mendi elkartera joanda ere, izena emateko aukera egongo da. Joan nahi duenak hilaren 7a, etzi, baino lehen eman beharko du izena.

Bi irteeretan joateko autobusa 07:00etan irtego da Olaederra kiroldegian aurretik, hilaren 9an.

XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

Zein da XIV. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi argazki finalistetatik gehien gustatzen zaizuna?

Eman zure bozka, harpidedun!

(argazkiak ikusgai webgunean) Deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira edo idatzi, **thargazkiak@hitza.info**-ra

hitza



Iragan larunbatean elkarretaratzea egin zuten Tolosako Trianguloa plazan, kaleratzeak salatzen eta kaleratuei elkartasuna azaltzeko. A. IMAZ

SAM enpresako langileek lanuzteak eta grebak iragarri dituzte

Zuzendaritzak lau langile kaleratu ditu; etorkizunaren inguruan kezkatu agertu dira LABeko ordezkariak

Asier Imaz

Tolosako SAM enpresan lau langile kaleratu ditu zuzendaritzak. Enpresa batzordeak eta langileen asanbladak erabaki hau salatzen, mobilizazioak antolatu ditu. Iragan larunbatean egin zuten lehena: Trianguloa plazan elkarretaratzea. Atzo, gaur eta ostiralean, errelebo bakoitzean bi orduko lanuzteak egiteko asmoa ere azaldu dute, eta urriaren 10ean eta 11n, egun osoko greba deitu dute.

SAMko enpresa batzordeak eta LAB sindikatuko ordezkariak azaldu dutenez, azken urteetan SAMk irabazi handiak izan ditu, eta aurten ere irabazi «mamitsuekin» itxiko du urtea. Euren esanetan, «hori ez zaio batere axola zu-

zendaritzari, bere helburuak beste batzuk baitira, langileen bizkar euren irabaziak handitzea».

Gutun azalak egiten dituen lantegiaren egoera nolako den azaltzeko, 2009an gertatua azaldu dute: «Zuzendaritzaren ustez, lan jaitsiera nabarmena zen, baina 385.000 euroko irabaziak izan zituen SAMk. Hori nahikoa ez, eta sei milioi euroko balioan (mila milioi pezeta) dibidenduak banatzea erabaki zuen bere akzio-dunen artean, langileen batzarraren iritzia aurka. Hori ez da izan banatu duten diru bakarra, urtero-urtero banatzen baitute akzio-dunen artean irabazien zati garrantzitsu bat, baita aurten ere».

Testuinguru honetan kaleratu dituzte lau langileak. SAM enpresan 30 urte baino gehiago zeramatzaten lanean; langileek 49, 53, 55 eta 56 urte dituzte.

SAMko langileen artean LAB sindikatuak bi ordezkari ditu, CCOOK bat eta independenteek bi. Mobilizazioekin guztiek egin

dute bat, aurrerantzean zergertatuko den ez baitakite ongi.

Nahi eta ezin

Tompla multinazionalak Tolosako SAM enpresen akzioen %89a dauka. Erabakiak beraz, Tompla Madrilen duen egoitzatik hartzen dira. 2009an, horrela gertatu zen. LABeko bi ordezkari esanetan, irabaziak eraman ostean, jendea sobran zegoela esaten hasi ziren: «Baldintza kaxkarrean gelditu ginen. Edozer gauza egiteko, dirua eurei eskatu beharrean aurkitu ginen, eta eurek mailegu bat izango balitz bezala ematen ziguten dirua, interes batekin. Gure lanarekin lortutako irabaziak eramatean, eta enpresa deskapitalizatuta utzi zuten; ipurdia agerian gurela gelditu ginen. Ondoren, jendea soberan zegoela esaten hasi ziren: gastu pertsonala handiegia zela».

Enpresak galerarik gabe jarraitzen zuen ordea, nahiz eta krisi bariantan egon. «Eskariak murriztu egin zirela zioten, baina gutxiago

edo gehiago, beti eduki ditugu irabaziak», diote LABeko ordezkariak. Hala eta guztiz ere, langileek soldata jaitsierak, aurre-jubilazioak eta enplegu erregulazioak onartu zituzten. LABeko kideen esanetan, «hori guztia egin ondoren, zuzendaritzak kaleratzeekin erantzun du».

Negoziaketak maiztean hasi ziren: «Langileon ordezkariak Madriletik etorritako ordezkari batekin elkartu ginen, Jose Luis Goñirekin. Asanbladak negoziatzeko eskatu zigun, eta horrela egin genuen. Kaleratzeak ekiditeko, izugarriko eskaintzak egin ditugu, eta denei ezetz esan diete», diote LABeko ordezkariak. Eskaintza horien artean, soldata %8-10 jaitea, aurre-jubilazioez hitz egitea eta ordu lanekin loturiko soldaten jaitsiera aurkitzen ziren.

Enpresak ordea, dirua alde batetik eta lan taldea bestetik zihola erantzuten zuen behin eta berri, sindikatuko kideen esanetan. «Lau kaleratuak baina din

↓ Mobilizazioak

GAUR ETA ETZI

■ **Bi orduko lanuzteak.** Errelebo guztiek bi orduko lanuzteak egingo dituzte. 12:00etan enpresaren kanpoan elkartuko dira.

URRIAK 10

■ **Greba.** 10:00etan kotxe karabana, SAM enpresatik.

URRIAK 11

■ **Greba.** 11:00etan giza katea SAM enpresatik Trianguloa. 12:00etan elkarretaratzea edo manifestazioa Trianguloa plazatik.

handiagoko jendea dago SAM enpresan. Euren aurre-jubilazioez hitz egiteko eskatu dugu, baina horrek alde batetik kostu altuagoa duenez, eta bestetik, laster jutilatuko direnez, nahiago izan dute lau langile kaleratzea». Espainiako gobernuak onartutako lan erreformarekin, gainera, kaleratze «oso merkeak» atera zaizkiela gaineratu dute.

Negoziaketan ibili diren langile ordezkariak, zuzendaritzaren jarrerarekin «beldurtuta», «desilusionatuta» eta etorkizunari begira «kezkatuta» agertzen dira. Euren aldetik proposamenak eta proposamenak egin dituztela diote, baina erantzuna beti bera izan dela salatu dute. Horri aurre egiteko, mobilizazioak antolatzea erabaki zuten: «Alde batetik, kaleratuei elkartasuna azaltzeko, eta bestetik, etorri daitekeenaren aurrean erantzun bat prestatzen joateko». Hala eta guztiz ere, ez da erraza izan kalera ateratzea. SAM enpresako LABeko ordezkari esanetan, zuzendaritzaren aldetik mehatxuak jasan behar izan dituzte: «Mobilizazioak egin ezker, guretzat kaltegarriak izango zirela esaten ziguten».

Mehatxuak mehatxu, egoeraren gorriak mobilizazioetara eraman ditu SAMko langileak, eta ondorengo egunetan egingo dituzten ekimenetan parte hartzea deitu dituzte herritarrek.



sarrerak



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera** pare du

Urriak 9 • Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Obradoiro CAB
saskibalo partida



Gerraren ondoren, Tolosan izan ziren lehen dantzari taldeak Korazonisten elizan aritzen ziren, Kordimarianak gazte mugimenduan, bertako fraile batzuen bultzadaz.

Korazonisten dantzari taldeak

Joxemi Saizar Tolosa

Udaberri Dantzari Taldeak 50 urte bete zituen duela urte gutxi, baina duela 60 urte bi dantzari talde zeuden Korazonistetan, neskena eta mutilena. Mutilen taldeak Haritz zuen izena, eta neskena, Kordimarianak. Mendizalare ere baziren eta Alpino Uzturre mendi elkartearen han sortu zen.

Aurreko mendeko 60. hamarkadara egin behar dugu atzera. Francoren erregimena dela eta, euskal kutsuko edozein gauza galerazita zegoen garaia: dantzak, antzerkiak, kantak, argitalpenak... Euskaraz egitea ere bai, noski. Euskaraz hasiz gero, «habla en cristiano» entzun behar izaten zuten. Garai zailak euskaltzalea izateko.

Hala ere, Tolosako Korazonisten elizan baziren euskal giroko zenbait talde bultzatu zituzten fraile batzuk. Gaztedi Kordimariana izenpean aritzen ziren gazteekin lanean. Abesbatza eta dantza taldeak sortu zituzten. Mendizalatasuna ere bazen eta Alpino Uzturre mendi elkartearen bertan kokatu zen bere lehen urteetan. Luis eta Ruperto Iruarrizaga anaiak, Claudio Barroeta eta Les fraileen izenak aipatu dizkiote solaskideek HITZARI.

Mutilen dantza taldeak Haritz zuen izena. «Nire koinatua Santi Mendiburu izan zen bultzatzaile-etakoa», dio Juanjo Mendizabalak. «Dantza irakastera Alegiako dantzari bat eta Beasaingo Otaola abizeneko gizona ekarri zituzten fraileek», gogoratzen du Xabier Garikanok. Berak danborra jotzen zuen, txistua jotzen zuten Iñaki eta Andoni bere anaiak eta Jose Antonio Iturrioz lehengusarekin batera.

Dantzariak Nicasio Dendaluze, Cortinas, Javier Azaldegi, Juanito Etxeberria, Jose Antonio Aranburu, Naparra, Bautista Elola, Bautista Urkizar, Miguel Mari Arteaga, Goiogana anaiak, Jose Ramon Yarza, Jon Yarza, Juanito eta Inazio Ugarte, Alegiako Tomas Iraola, Iñaki Urruzola, Iñaki Arrue... izan omen ziren.

Emanaldi gutxi, inguruan

Aurreneko aldiz aktuzioa Beasainen egin omen zuten, Usurbe mendiko gurutzea inauguratu zenean. Emanaldi asko ez zituzten izan. Alkizan Sorarrain apaizaren lehen mezan 1951ean, Izaskunen eta Ibarrao plazan egindakoak gogoratzen dituzte. Ezkontza batzuetan ere bai, adibidez Karmele Goñi (gero Bilboko Euskal Museoko zuzendaria izan zena) ezkondu zenean Zerainen. Ez zieten gauza handirik ematen emanaldiengatik, «batzuetan ezta azeitunak ere» diote, horregatik etxetik bakoitzak bere puxka eramaten zuela gogoratzen dute. Jantzia berriz, bakoitzak berea eginda omen zuten.

Egunero entsaiatzen zuten Korazonisten goiko pisuan eta dantzen artean, *Aurreskua* (Donostiekoek erakutsita) eta gero *Ezpatadantza* (ordu arte inork ez zekien Tolosan), Banakoa, *Lau-nakoa*, *Kaxarranka* ikasi zuten. Gipuzkoako dantzak ez omen zekizkiten. Sanjoanetan ez zuten dantzatzen. Blas Lasa aritzen zen horretan eta berak erakusten zieten Falangeko kideei dantzan.

«Subertsibo xamarrek ginen. Division Azul zegoen hemen. Batzuk pistola zeramaten gerrikoan. Gu txapela eta kaikuarekin ibiltzen ginen, euskaraz hasi ginen egiten, baina politikaz ezer ez. Askok kantatzen genuen kalean, serenoa etortzen zen arte. Gero Santa Agedatan eta Eguberrietan ere bai. Fitzatuta geunden», aipatzen du Xabier Garikanok. «Gerra ondoren Santa Agedatan txistua jotzen atera ginen lehenak izan ginen Tolosan. Jobitza galerazita genuen. Gainera partiturak lortzea oso zaila zen», eranstun du bere anaia Iñaki Garikanok txistulariak. Honek Guisarekin batera.

Donostiako Gazteri Kordimarianako Bihozdun dantza taldearekin txistua jotzen ibili ziren Garikanotarrak, Frantziara eta guzti. Eta urte batzuk horrela ibili ondoren, taldea desegin egin zen. Horietako batzuk gero Udaberriren sorreran parte hartu zuten, Juanjo Mendizabal eta Jose Ra-



Haritz dantzari taldea. Zutik, ezkerretik hasita, Otaola, Jose Antonio Iturrioz, Iñaki eta Xabier Garikano (bien artekoa ez dakite zein den), Anotako Txulo, banderarekin Bautista Elola, Jon Iriarte, Inaxio Mari Urruzola; behean, Josu Pagadizabal, Santi Mendiburu, Ricardo Mendietza, Tomas Iraola eta Bautista Urkizar. HITZA



Kordimarianen neska taldea. Zutik, ezkerretik hasita Iñaki Garikano, Sabin Lizaso, Pedro Aranzabal, Jose Antonio Iturrioz eta Xabier Garikano musikariak. Nesken artean, goian, ezkerretik hasita, Arantxa Artolazabal, Juan Prados, M^ñ Paz Etxeberria eta Zipri Ugalde; behean, Milagros Amantegi, Sole Prados, Arantxa Zugasti, Maritxu Gonzalez eta Teresa Iza. 1951eko abuztuaren 28an, Gasteizen. HITZA

mon Yarza adibidez, laguntzaile modura.

Neskek ere bai

Mutilena bezala, neska talde bat ere aritzen zen Korazonistetan dantza ikasten, lehen aipatutako fraileek bultzatuta. «Abesbatza ere bazen, elizan abesteko. Mendirra ere joaten ziren. Aita Les hasi zuten mugitzen aktibitate hauek eta gero Elezkano eta Berroeta gazteak etorri ziren. Abesbatza eta dantza taldean aritzen ginenak batera, oso pozik. Txarrak ginen denetan», gogoratzen du Arantxa Artolazabalak. Musikari bezala, Garikano anaiak eta Sabin Lizaso zituzten, eta haiek faltaz zirenean beraiek txistua egiten aritzen zirela aipatzen du.

Maritxu Gonzalezek eta Villabonako Antonio izeneko gizon jator batek erakusten omen zien dantza: *Arku dantza*, *Makil dantza*, *Zintak*, *Aurreskua*, *Sagar dantza*... Argazkien azaltzen direnez gain, Izaskun Artolazabal (Arantxaren ahizpa), Gurrutxaga, Bakartxo Artola... ere aritu ziren Kordimarianen dantza taldean. Emanaldi gisa, Deba, Beiza eta Tolosan egindakoak ditu gogoan Artolazabalak. Neskak eta mutilak batera joaten ziren emanaldi batzuetara. Maiatzean egunero mezetara joan ondoren eskursioak izaten zituzten eta halakoetan ere dantza egiten omen zuten. Herrietara joan eta aurreskua egiten zuten. «Eta Tolosan, sanjoanetan, aurreskuan ateraz

gero, gu gustura», dio. Dantza solteko lehiaketetan ere parte hartu zuten Artolazabal ahizpek eta, «lotsa» ematen dio esatea, sari bat ere irabazi zuten.

«15 urtetik 18ra edo ariko nintzen ni dantzan. Taldeko batzuk urte batzuk gehiago izango zituzten. Gero utzi behar izan nuen. Askok gustatzen zait euskal dantza. Orain dantzatzen ikusten ditudanean inbidia ematen didate. Oso ondo egiten dute gainera», dio Artolazabalak.

Erreportai honetan aipatutako pertsona batzuk gero beste pauso bat eman eta antzerki munduan murgildu eta euskarazko antzezlanak eskaini zituzten Tolosan. Baina hori beste baterako utzi behar dugu.

Hirugarrenoz ospatuko dute Euskal Jaia Ikaztegietan, larunbatean

Oñatiko Artzai Eskolako kideen eskutik, gazta nola egiten den ikusi ahal izango da goizean zehar

Rebeka Calvo ikaztegieta

2007. urtean hasi zen Ikaztegieta-ko Udala Euskal Jaia ospatzen. Orain arte hortaz, bi edizio egin dituzte, eta hirugarrena larunbatean izango da, hilak 8. 10:00etan zabalduko dituzte postuak, eta 14:00ak arte egongo dira ikusgai. Festa iragartzeko, gainera, txalapartarien doinuak zabalduko dituzte herrian. Euskal Jaian bertako produktuak izango dira nagusi; beti bezala herriko baserrietako eta etxeetako produktuak izango dira, nahiz eta, kanpotik ere iritsiko diren postuak.

Era berean, goizean zehar haurrentzako tailerrak izango dira, eta baita egur taila ere. 12:00etan Alegiako Sutarri taldeko dantzarien emanaldia ikusi ahal izango da, eta goiz osoan zehar zanpan-



Orain bi urte belarratik lihoa nola atzeratzen den ikusi ahal izan zen. R. CALVO

tzarrek zintzarriak jarriko dituzte dantzan herrian zehar. Trikitilariak ere izango dira kalejiran goizean zehar.

Gazta protagonista

Orain bi urte artisauek beira nola lantzen zuten ikusteko aukera izan zen, eta baita, Zaldibiako Pedro Arruabarrena eta Karmele Aduriz ere, hauek belarretik lihoa nola egiten duten erakutsi zutelarik. Aurtengoan gazta izango da protagonista. Oñatiko Artzai Eskolako kideak izango dira ikaztegietan, eta gazta nola egi-

ten den erakusteaz gain, dastatzeko aukera ere eskainiko dute. Eguna borobiltzeko bazkaria egingo dute 14:30ean. Txartelak ostirala bitarte eskuratu daitezke Ostatu eta Toki Alai tabernetan 25 euroren truke, eta langabetu eta ikasleek, aldiz, 20 euro ordaindu beharko dute. Txekorra buruntzian erreta eskainiko dute, eta horretarako, gau osoan egongo dira herritarrek txekorra erretzen.

Euskal Jai dotorea osatzeko, udalak herritarrei artzain-andre jantzia emateko eskatu die.

Produktu nafarrak izango dira Leaburu-Txaramako azokan

III. Ganadu, Artisau eta Barazki Azokan Lezaun upategien ardoa dastatzeko aukera izango da

R.C. Leaburu-Txarama

Leaburu-Txaramako Larte Azpiko Kultur Ekintza Elkarteak antolatuta, igandean, hilak 9, herriko produktuak erosteko aukera izango da plazan.

III. Ganadu, Artisau eta Barazki Azokan, urteroko moduan, bertako produktuak izango dira nagusi 09:00etan hasi eta 14:00ak arte. Aurtengo berezitasuna, dena den, Nafarroarekin izango du zerikusia; urtero herrialde bat gonbidatzen dute, iaz Ipar Euskal Herriko ekoizleak gonbidatu zituztelarik, eta aurtan Nafarroakoak izango dira. Horiek horrela, Lezaun upategietako ardoa dastatzeko aukera ere izango da. Leaburu-ko plazan Antton Arroniz ere izango da Lodosako piperrak erretzen.

Honekin batera, goizean zehar trikitilariak izango dira giroa alaitzen, eta bertako produktuak dastatzeko pintxoak ere izango dira. Haurrek, gainera, zalgardian ibiltzeko aukera izango dute.

Elkarteko kideek gerturatzan direnei artzain-andre jantzia eramateko deia egin diete. Eta baita bazkarira joatekoa ere; 14:30ean asto jatea izango da trikitilari eta bertsolariek alaiturik. Bazkaria Ostatuan izango da, 20 euro baliodu eta bihar da erosteko azken eguna. Haurrek 10 euro ordaindu beharko dute.



laz postuak pilotalekuan jarri zituzten. M. UGARTEMENDIA

Tolosaldeko bederatzi enpresa saritu dituzte

Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin ziurtagiria Abaltsisketa, Zizkurkil, Ikaztegieta eta Tolosan banatu dute

R.C. Tolosa

Tolosaldeko 9 enpresek jaso dute Eusko Jaurlaritzak banatzen duen Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin (SICTED) egiaztagi-

ria. Hauek dira enpresak: Zizurkilgo Abeletxe Jatetxea, Ikaztegieta-ko Begiristain Sagardotegia, Tolosako Beti Alai Jatetxea, Abaltsisketako Bizi biziki Turismo aktiboko enpresa, Tolosako Mujika Kafetegia, Tolosako Karmentxu Pentsioa, Abaltsisketako Nñanarri Jatetxea, Tolosako 19-90 Pub-a eta Tolosako Topic Museoa. Guztira 326 euskal enpresek jaso dute ziurtagiria.

Aipatu programaren helburua da, «epe ertain-luzean, turismo

establezimenduen kudeaketa zorroztasunez egitea eta horrela, sektorearen profesionalizazioa handitzea».

Programa hau, batez ere, saltoki txikiei zuzendua dago eta negozioaren kudeaketa zein eskaintako zerbitzua edota bezeroaren gogobetetzea hobetu nahi du. Tolosaldean Programa honetan parte hartzen duten bi talde daude eta hirugarren bat sortzeko lanean dabilzala ere aipatu dute Tolosaldea Tourreko kideek.



Getariako Balentziaga museoa jaso zuten ziurtagiria. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizalzeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak txikitoi!

Konspirazioen erregea (Urkizu).
Hainbeste Algidol hartu eta... noizko egingo dizu efektua?

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Enablers taldeak irekiko du Bonbereneako denboraldia

Aurtengoan sarrera hiru euro garestiagoa izango da, 8 eurokoa beraz; azken 11 urtetan ez dute salneurria igo

Rebeka Calvo Tolosa

Bihar bertan hasiko da Bonbereneako kontzertuen denboraldi berria, eta hasteko gonbidatu berezia izango dute: AEBetako Enablers taldea. Hau izango da gainera, taldeak Euskal Herrian eskai-

niko duen kontzertu bakarra. Enablers, 2002an sortu zen Los Angeles hirian. Pete Simonelli poetak gidatzen du taldea, eta post-rock eszena undergraudean kokatu behar dira. Simonelliz gain Joe Goldring, Kevin Thomson eta Dough Scharinek osatzen dute Enablers. «Hiru musikari olerkari, eta olerkari musikari bat dira», diote Bonbereneako kideek. Bonberenean *Blown Realms & Stalled Explosions* lana aurkeztuko dute.

Bonberenean oso argi dute: «Ez galdut kontzertu hau, edo benetan

damutuko zara zure lagunentzako kontzertuak entzutean».

Enablersen atzetik bertako musika izango da nagusi asteburu honetan: etzi, ostirala, Manillares Iturriagak eta 12 Tribuk joko dute, eta larunbatean Kerobiak.

Lehen taldea ezaguna da eskualdean, adin guztietako alegiarrek osatzen baitute, eta rocka lantzen dute. 12 Tribu talde beterranoak aldiz, ska eta reggae doinuak eskainiko du.

Iruñeako Kerobia taldeak bere aldetik rock kontzertua eskainiko du.

Sarrerak

Ikasturte honetan sarrerak 5 eurotik 8 eurora igoko dira. Bonbereneako kideek «bizitza gora doala eta gastuak kubritzeko» salneurria igo behar izan dutela diote.

«11 urtetan ez dugu sarreraren salneurria igo, 5 eurotan mantendu dugu, baina musikariak behin baino gehiagotan eskatutako zer-bait da», diote.

Musikariak sarreraren truke jotzen badute, gastuak kubritzeko oinarritzko kopuru bat ere bildu behar dutela diote Bonbereneakoek. «Ez dugu taldeen arteko desberdintasunik egin nahi», gaineratu dute.



Enablers taldeak bihar eskainiko du kontzertua, 22:00etatik aurrera. HITZA

↓ Urriko egitaraua

■ **Urriak 6, bihar.** Enablers talde estatubatuarra 22:00etatik aurrera.
■ **Urriak 7, ostirala.** Manillares Iturriaga eta 12 Tribu 22:30etik aurrera.
■ **Urriak 8, larunbata.** Kerobia 22:30etik aurrera.

■ **Urriak 14, ostirala.** Lain eta Bertan Behera 22:30etik aurrera.
■ **Urriak 15, larunbata.** Willis Drummond 22:30etik aurrera.
■ **Urriak 21, ostirala.** Def Con Dos 22:30etik aurrera.
■ **Urriak 22, larunbata.** Su ta

Gar 22:30etik aurrera.
■ **Urriak 28, ostirala.** Napokaria 22:30etik aurrera.
■ **Urriak 29, larunbata.** Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta Bonberenea Txarangaren kalejira Tolosan zehar, 11:00etatik aurrera.

Agenda

DEIALDIAK

- **Amezketa.** Ezker abertzaleak herri batzarra egingo du gaur, 20:30ean erabilera anitzeko gelan. Herritar guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera.
- **Ugarte.** Ostiralean, hilak 7, Errosarioko Amaren jaien barruan egingo duten herri afarirako txartelak eskuratu daitezke jada Goikoetxearenean. Afaldu aurretik Muñoa eta Gorostidi bertsolarien saioa izango da.
- **Tolosa.** Amaiur koalizioa hautsundeetan parte hartzeko sinadurak behar ditu. Sinatu nahi duenak gaur du aukera, horretarako udaletxera joan behar da 09:00etatik 14:00etara edo 16:00etatik 18:00etara.
- **Tolosa.** Udalak jakinarazi duenez, indarrean dagoen hautesle-eroldako zerrendak hilaren 11a bitarte ikusi daitezke udaletxeko beheko solairuan. Oker dagoen daturen bat zuzendu nahi duenak orain du aukera. Erreklamazioa egiteko NANAren, pasaportearen edo gida-baimenaren fotokopia aurkeztu behar du udaletxeko Estatistika sailean (3. solairuan).

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

